



JUBILATUEN ELKARTEA

Santa Lucia, 5-2º DONEZTEBE - Nafarroa | Tel.: 948 45 08 78 - 618 567 837 | www.arkupeak.com | arkupeak@yahoo.es

ALBISTE
BULETINA

16.zkia

2. SEIHILEROKOA 2017

EGUR ZIZELKETA
ETA PIROGRABATUAK



JUBILOTOKIA



MEMORIA TAILERRA



PINTURA

Ekitaldi finantziatua

> Ohar garrantzitsuak

1.

Norbaitek bazkide bezala baja eman nahi badu, urtarrilaren 31 baino lehen egin dezala.

2.

Egun bateko bidaiarako izen eman duenak irteerara ez bada azaltzen aurretik abisatu gabe, ez zaio dirurik itzuliko.

3.

Bazkideren batek bidaietan laguntza behar badu, komeni da lagun batekin joatea. Ez da beharrezkoa bazkide edo jubilatua izatea.

4.

ESKULANEN ERAKUSKETA:
2017ko urtean eskulaneko erakusketak egin nahi ditugu. Elizondon (feria egunean), Leitzan (talo egunean) eta Donezteben (feria egunean). Izaten ahal dira zurez, burdinaz, hariz, pinturaz eta abarrez egindako lanak. Parte-hartze zabalagoa bideratzeko eta hobeki antolatzeko, nahi dugu erakusketetan parte hartzeko borondatea duzuenen zerrenda bat osatzea. Horregatik eskatzen dizuegu bulegora deitu eta zuen datuak emateko. Hala ere, edozein momentutan izena emateko aukera izanen da.

LITERATURA, ARGAZKI, PINTURA ETA MARRAZKETA LEHIAKETAK

Literatura, argazki, pintura eta marrazketa lehiaketak argitaratu ziren 15. Boletinean.

EPEAK

Ez ahaztu lanak aurkezteko epeak hauek direla:

Literatura:

2017ko maiatzaren 30erako

Argazkia:

2017ko irailaren 15erako

Pintura eta marrazketa:

2017ko irailaren 15erako

> Omenaldiak

Felipe Gamboa-ri



Aurten betetzen dituzu 85 urte, eta horregatik dagokizu ARKUPEAK elkartearen omenaldia, zure lehendakaritzarekin hasi zena, hain zuzen ere. Baina elkarte honek nahi du, zure kasuan, aipamen berezi bat egin. Zuk, beste lagun batzuekin, elkarte sortu zenuen 1986an. Gero, 25 urtez lehendakari izan zara eta lan asko egin duzu.

ESKERRIK ASKO ETA ZORIONAK, FELIPE, hemen daude zure ahaleginen fruituak, eta aurrrera jarraituko dugu.

M^a Isabel Mitxelorena-ri



Zuk ere aurten 85 urte betetzen dituzu, eta zuri ere aipamen berezi bat nahi dizugu egin. 12 urtez elkartearen idazkari izan zara, administrazio lanak zure gain hartuz.

ESKERRIK ASKO ETA ZORIONAK, M^a ISABEL.

> 2017.ko 2. seihileko ekintzak

Bidaiak

ABUZTUA

- 31 > Arantzazu

IRAILA

- 14 > Lezo
- 18-23 > Salamanca, Ávila eta Segovia

URRIA

- 4-17 > Benidorm
- 11 > Getariako Museoa eta Zarautz
- 19 > Bazkideen eguna

AZAROA

- 8-15 > Lanzarote
- 2 > Lizarra eta Lodosa

ABENDUA

- Delegatuak

OHARRA:

Datak alda daitezke beharraren arabera

SARITUTAKO ETA ARTISAU LANEN ERAKUSKETAK:

Leitzako Talo Egunean, Elizondoko eta Doneztebeko Ferietan

HITZALDIAK: (aurretik jakinaraziko dira):

Elikadura egokia jubilatuentzat, Beran eta Elizondon.

Ictus gaitza. Leitzan eta Donezteben.

IKASTAROAK

MENDI IRTEERAK:

Uztailan: Txindoki, irailean: Pirineotara eta urrian, Gorbeara.
Gainerako irteerak bere momentuan adieraziko dira.

> Ikastaroak

Bigarren seihileko ikastaroak

Iraupena

Dantza	3 hilabete
Luzaketak	urte guztian
Igeriketa	10 aste
Aquagym	10 aste
Lorezaintza	25 ordu
Egur zizelketa eta pirograbatua	3 hilabete
Yoga	3 hilabete
Memoria tailerra	3 hilabete
Erlaxazioa	12 ordu
Autoestimua hobetu	18 ordu
Pintura (Diana Iniestak emana)	8 hilabete
Pintura (Iciar Mikelperizenak emana)	8 hilabete
Frantsesa	8 hilabete
Jostuna	3 hilabete
Kontserben sekretuak	20 ordu
Mugikorraren erabilera	6 ordu

“LA Caixa”-rekin elkarlanean eskaintzen diren ikastaroak

Ikastaroa

Iraupena

Informatika hasiera	20 ordu
Dokumentuak sortu eta diseinatzea	20 ordu
Argazki erretokea eta aurkezpen digitalak	20 ordu
Sarera konekta zaitez	16 ordu
Irrifar batekin esnatu	6 ordu
Aktiba zaitez	8 ordu
Min gutxiago bizitza gehiago	12 ordu
Entrena zaitez	16 ordu
Irakurle handiak	12 ordu

Izena emateko azken eguna **2017ko ekainaren 30a**
Ikastaroen kostua eta egutegia izena eman ondotik finkatuko dira.

> Arantzazu Abuztuak 31

Autobusen irteerako ordua izena eman ondoren adieraziko da.
Gosaria bidean, egokia iruditzen zaigun lekuan.

11:00 Arantzazura iritsiera eta aitortza sakramentua.

12:00 Meza Santua.

13:00 Autobusen irteera Urnietaruntz.

14:30 Bazkaria Urnietako OIANUME jatetxean.

MENUA

*Menestra
Onddoen nahasketa
Arrain zopa
Bildots errea entsaladarekin
Tarta izozkiarekin
Ura, ardoa, sagardoa, kaba, kafea, kopa
edo txupito*

16:30 Dantzaldia.

19:00 Autobusen irteera.

Prezioa: 45€.
Izena emateko egunak: Uztailaren 17, 18 eta 19an herri bakoitzeko delegatuarekin.
Ordainketa data: Abuztua.

> Lezo Irailak 14

Autobusen irteera ordua izena eman ondoren adieraziko da.

11:00 Meza Santua euskaraz.

12:00 Herri kirolak.

13:30 Autobusen irteera Oiartzun aldera.

14:00 Bazkaria GURUTZE BERRI jatetxean.

MENUA

*Menestra
Legatza txirlekin
Bildotsa entsaladarekin*

*Tarta izozkiarekin
Ura, ardoa, sagardoa, kafea, kaba, kofina,
patxarana edo uxuala*

16:30 Dantzaldia

19:00 Autobusen irteera

Prezioa: 42€
Izena emateko egunak: Uztailaren 31n eta abuztuaren 1 eta 2an herri bakoitzeko delegatuarekin.
Ordainketa eguna: Abuztua.
Oharra: Norbaitek kotxez etorri nahi baluke, izena emateko garaian adieraz dezala

> Gaztelako bidaia: Salamanca, Segovia eta Avila > Irailaren 18tik 23ra

IRAILAK 18: ETXETIK SALAMANCARA

Bidean geldiera bat edo beste egin eta Salamancan hotelera gelak aukeratzeko eta gero bazkaria. Arratsaldean: Peñaranda de Bracamonte herrira hango leku bereziak bisitatzeko, batez ere, hiru enparantza interesgarriak eta gero berriz Salamancara. Afaria eta lotara.

IRAILAK 19: SALAMANCA

Egun osoa hiria ezagutzeko, merezi du eta. Giza ondarea bezala onartua da. Enparantza zoragarria, unibertsitatea, bi katedralak, San Esteban eliza eta abar ikusteko aukera izango da. Arratsaldean askatasun osoa bakoitzak nahi duena egiteko: erosketak, itzuli bat edo bertako produktuak dastatzeko.

IRAILAK 20: SALAMANCA – AVILA – SALAMANCA

Goizean hotelean gosalduta eta gero Avila ikusi eta bertan bazkaldu.

Arratsaldean Salamancara itzuli, afaldu eta lotara.

IRAILAK 21: SALAMANCA – PEÑA DE FRANCIA – LA ALBERCA – MIRANDA DE CASTAÑAR – BEJAR - SALAMANCA

Hotelean gosalduta eta La Alberca aldera abiatu. Inguruan dagoen Santutegira igo eta gero La Albercako kaleak gurutzatu, gozatu eta bertan bazkaldu. Arratsaldean Miranda de Castañar aldera abiatu, hango kale bereziak eta gaztelua ikusi. Gero Bejarako leku bereziak ere ikusi eta Salamancara. Afaldu eta lotara.

IRAILAK 22: SALAMANCA – SEGOVIA

Hotelean gosalduta eta Segoviara abiatu, han egun osoa hiria ikusteko: ubidea, katedrala, gotorlekua eta abar. Hirian bazkaldu eta afalduko dugu.



IRAILAK 23: SEGOVIA - PEDRAZA - ETXEA

Hotelean gosaldu eta Pedraza herrira joan. Gaztelako enparantza zoragarrietako bat dago. Bazkari berezia egingo dugu eta gero etxeruntz abiatuko gara.

Prezioa:

460€ binakako logelan.

580€ Banakako logelan.

Izena emateko egunak: Ekainaren 19, 20 eta 21ean bulegoko 948450878 edo 618567837 telefonora deituz

Ordainketa data: Uztaila.

Ezeztapenak: Bidaiari uko egiteko galdetu bulegoan.

Prezioan sartuak:

-Autobusa

-Lau gau Salamancako 4***-eko Corona Sol hotelean eta gau bat Segoviako 4****-eko Puerta de Segovia hotelean.

-Gidaria bide osoan.

-Bertako gidariak Salamancan, Avilan eta Segovian

-Sarrerak: Salamancako katedralak eta Unibertsitatea, Avilako harresiak, katedrala eta Santa Teresaren monastegia. Segovian katedrala eta gotorlekua.

-Bazkari berezia: TXERRIKUMEA.

-Bidai aseguruua.

-Pentsio osoa, ura eta ardoarekin.

> Benidorm Urriaren 4tik 17ra

ALOJAMENDUA

FENICIA HOTELA:

30 bazkide: logela bikoitza: 695€. Banakako logela: 915€.

40 bazkide: logela bikoitza: 685€. Banakako logela: 905€.

50 bazkide: logela bikoitza: 655€. Banakako logela: 875€.

POSEIDON HOTELA:

Logela bikoitza: 830€.

Oharra: 8 logela bakarrik eskeintzen dituzte. Ez dago banakako logelarik.

Prezioan sartuak:

-14 egun/ 13 gau.

-Autobusa .

-Pentsio osoa (ura eta ardoa barne).

-Joan etorriko bazkariak.

-Bidai aseguruua..

Izena emateko egunak: Abuztuaren 28, 29 eta 30ean bulegoko 948450878 edo

618567837 telefonora deituz.

Ordainketa data: Iraila.

Ezeztapenak: Bidaiari uko egiteko galdetu bulegoan.



> Getariako museoa eta Zarautz Urriak 11

Sarrera: "Kristobal Balenziagaren museoan artista getariarrak diseinatutako sorkarien nazioarteko bilduma garrantzitsuena dago, bai ale kopuruari dagokionez, bai sorkarion kalitateari erreparatuz. Gainera, aro kronologiko zabala biltzen du museoak. Museoko espazioetan, bildumetako pieza hautatuak erakustez gain, modari lotutako aldi baterako erakusketak eta hezkuntza zein aisialdiko jarduerak ere proposatzen dira".
Autobusen irteera izena eman ondoren adieraziko da.

10:30 Getariara iritsiera eta ordu erdiko atsedena.

11:00 Kristobal Balentziaga museoaren bisita. Hiru talde egingo dira: bi 20 pertsonakoak eta bat hamarrekoa.
Bisita bukatutik autobusen irteera Zarautz aldera eta bazkaria Alameda hoteleko AZPIENEA JATETXEAN.

MENUA

Entsalada epela

Arrain zopa

Bakailaoa bizkai erara

Txahalaren entrekota

Flana izozkiarekin

Ura, ardoa, sagardoa, kafea, kaba (botila bat lauentzat) koñaka normala edo txupito.

16:30 Alde Zaharreko eta malekoiko itsas aldean itzulia.

18:00 Autobusen irteera.

Prezioa: 45€.

Izena emateko egunak: Irailaren 11, 12 eta 13an bulegoko 948450878 edo 618567837 telefonora deituz.

Ordainketa data: Iraila.

Oharra: 50 plaza bakarrik daude jatetxean. Plaza horiek beteta zerrenda berri bat zabalduko da beste 50 plaza bete arte. Talde horren bidaia hilaren 10ean izango da



> Bazkideen eguna Gorraizen Urriak 19

Autobusen irteera izena eman ondoren adieraziko da.

11:00 Autobusen iritsiera Gorraizko gazteluaren ingurura.

12:00 Meza Santua gure bazkide hildakoen oroimenez.

Meza ondoren omenaldiak, platinozko eta urrezko ezteiak eta 85 urte betetzen dituztenei.

Aurrez sariak banatuko zaizkie literatura, argazki, pintura eta marrazketa lehiaketak irabazi dituztenei.

14:00 Bazkaria Gorraizko jatetxean

MENUA

Udako entsalada, Tuterako kogoiloak, izozkina eta gazta freskoa

Frigitu desberdinak

Risotoa Ultzamako onddoekin

Ajoarrieroa mariskoarekin

Tenperatua baxuan erretako

esne-bildotsa, Tuterako kogoilo

eta Idiazabal saltsarekin

Hostopila esnegain eta bainila izozkiarekin

Nafarroako ardo beltza eta gorria,

erreserba Brut Cava, ur mineralak

kafeak eta kopak

16:00 Dantzaldia.

19:00 Autobusen irteera.

Prezioa: 42€.

Izena emateko egunak:

Abuztuaren 28, 29 eta 30ean herri bakoitzeko delegatuarekin.

Ordainketa data: Iraila

> Lanzarote Azaroaren 8tik 15era

Irteerako ordua, herri desberdinetatik, izena emandako bakoitzari adieraziko zaio.

ALOJAMENTUA:

4**** Beatriz Playa

Prezioa:

Binakako logelan (dena barne): 750€.

Banakako logelan: 940€.

Izena emateko egunak: Uztailaren 3, 4 eta 5ean bulegoko 948450878 edo 618567837 telefonora deituz.

Ordainketa data: Uztaila.

Prezioan sartuak:

-Autobusa.

-Hegazkina zuzeneko joan etorrian. Bilbo-Lanzarote-Bilbo (turista).

- 4 **** Beatriz Playa hotelean

8 egun/7 gau.

-DENA BARNE (Eskumuturrekoa).

-Bidai aseguru.


-Bidaian beharrezkoa balitz, autobus osagarria prest egongo da.

Prezioan sartu gabeak:

-Telefonoa, ileapaindegia, garbilekua...

-Prezioan sartuta agertzen ez den edozein puntu.

Oharra: 50 PLAZA.



> Lizarra, Lodosa eta Azagra Azaroak 2

Autobusen irteera izena eman ondoren adieraziko da.

10:30 Lehenengo taldearen irtsiera Lizarrara, non gosaltzeko aukera izango den eta merkatu txikia ikusi ere.

11:30 Lehenengo taldea Lodosa aldera abiatuko da. Han ordu erdi batez egin daitezke erosketak. Bigarren taldea 12:00etan joango da eta hirugarrena 12:30etan

14:00 Autobusak Lodosatik abiatuko dira Azagara.

14:30 Bazkaria VENEZIA jatetxean

MENUA

*Piperrak, zainzuriak eta urdaiazpikoa
Dastatzeko: txapiroiak eta perretxikuak
nahasturik*

*Ganbak
Salda*

*Bildots errea patata eta entsaladarekin
Ardoa beltza eta gorria, kafea, txanpaina
eta kopa.*

16:30 Bingo eta dantzaldia.

19:00 Autobusen irteera.

OHARRA: Bazkide gehienok Lodosako lantegian egiten duten lana oso ondo ezagutzen dugularik, ordu erdi bakarrik geldituko gara erosketak egiteko, eta horrela ez gara herrian aspertuko.
Prezioa: 42 €.
Izena emateko egunak: Irailaren 18, 19 eta 20an, herri bakoitzeko delegatuarekin.
Ordainketa data: Iraila.



> 2017. urtean orain arte egin diren ekintzen eta bidaien laburpena.

Zuzendaritza Batzordearen eta Delegatuen bilera:

Batzar Nagusiaren bilera: 2016ko abenduaren 29an delegatuak bildu ziren loteria kobratzeko zenbat aukera zeuden aztertzeko.

Akordio hau erabaki zuten: Nahi zuenak Doneztebeko kutxan kobratu edo herri bakoitzeko delegatuekin adostu erabakia.

Bidaia Komisioaren bilera: 2017ko otsailaren 6an alkartu zen erabaki hauek hartuz:

Viajes Ikemevoy-k antolatuko du Gaztela eta Leongo bidaia; Viajes Barceló Benidormekoa eta Viajes Eroskik Lanzarotekoa.

Ikastaro Komisioaren bilera: 2017ko otsailaren 13an alkartu zen ikastaroak antolatzeko. 10 ikastaro emango dira Doneztebe, Leitza, Elizondo, Urdazubi, Oronoz -Mugairi, Elgorriaga eta Beran.

2017ko otsailaren 28an Zuzendaritza Batzordea alkartu zen. Azken hilabeteetako zenbait kontu erreparatu eta hurrengo hilabeteetan izango diren ekintzak antolatuz. Aurten loteria kobratzeko egon diren arazoak berriro ez errepikatu eta prozesua errazteko "la Caixa"-ko edozein bulegotan kobratu ahal izateko aukera desberdinak aztertuko dira. Nafarroako Kutxa Fundazioak 10.000 euro eman du. 2016ko diru kontuak onartu ziren. Gaztela eta Leongo bidaia Ikemevoy agentziak antolatuko du, Barcelok Benidormekoa eta Eroskik Lanzarotekoa. Urtarrilatik maiatzera 10 ikastaro emango dira.

Nafarroako Kutxa Fundazioaren dirulaguntza: Entitate honek eman duen dirulaguntza 10.000,00 eurokoa izan da, aurreko urteetan baino handiagoa. Eskertzekoa da proiektua prestaduteneke egindako lana.

Emandako ikastaroak: Hauek izan dira: frantseza, dantza, luzaketak, pintura, memoria tailerra, egur zizelketa eta pirograbatua, aquagym, yoga, informatika, lorezaintza. 185 pertsonak parte hartu dute.

Herrietako bestak eta mus txapelketak:

Ezkurra eta Eratsungo bazkideek izan dira lehenengoak **urtarrilean**; **otsailean** Baztangoiza, Urdazubi, Almandoz, Zugarramurdi, Berroeta, Aniz, Arraiotz, Oronoz, Oieregi, NARBART, Legasa, Doneztebe, Gaztelu, Oitz, Urroz, Elgorriaga, Ituren, Zubieta, Leitza, Areso, Etxalar eta Arantzan; **martxoan** Sunbilla, Lekaroz, Gartzain, Elizondo, Elbetea eta Irurita.

Ezkurran **22an** 15 bazkide bildu ziren Barranka ostatuan. **Hurrengo igandean** 29 bazkide Eratsunen. Mus txapelketan Migeltxo eta Xabierrek lortu zuten txapela; bigarrenak Migel eta Juanito eta hirugarrenak Calixto eta Tolare.

Otsailaren 4an Baztango Basaburua aldeko eta Oronozko bazkideak meza entzunda Beolan alkartu ziren. Jose Antonio Braña eta Jose Zelaietak eraman zuten txapela. Leitza berriz **otsailaren 11n** jokatu zuten mus txapelketa eta Juanito Zabaleta eta Migel Zabaletarentzat izan zen txapela. **Hilaren 12an** Etxalarko bazkideentzat izan zen txanda. Benantzio Elizagoien eta Manuel Arrosamenak lortu zuten txapela. **Hilaren 15ean** Ordoiki Erretegian alkartu ziren inguruko 80 bazkide. Juan Marisko eta Maria Pilar Aristegi irabazleak. Arantzan Eusebio Gonzalez eta Matias Arozena. Goizuetan Jose Ramon Sainz eta Eduardo Dato. Donamarian Pedro Bertiz eta Eduardo Elizondo. Josetxo Iparragirre eta Jesus Santesteban.

Egindako bidaiak

Otsailaren 16an, 102 elkartekide joan ziren **Pradejonen** dagoen txanpinoi haztegiara, estatuko handiena da. Goizeko 11:00etan bertako arduradun batek eman zien ongi-etorria eta txanpinoi pintxoak dastatu ondoren prozesu guztia nola gauzatzen den jakiteko aukera izan zuten. Ekoizpena, garapena eta salmentari buruzko informazioa eman zieten, eta haztegiaren historiari buruzko argazkiak, kuadroak ikusteko ere aukera izan zuten. Gero autobusez txanpinoiak eta bestelako perretxikoak landatzen diren tokira joan ziren. Bisita bukatutakoan Castejonera joan ziren eta bertako buffet batean bazkaldu zuten. Arratsaldean Erriberriko gaztelua bisitatu zuten, Nafarroako erai-

> 2017. urtean orain arte egin diren Mendi irteerak

kin historiko-artistiko garrantzitsuenetakoa, 1042 eta 1424 artean eraiki zuten eta pasa den urtean, 200.000 turista baino gehiagok bisitatu zuten.

Martxoaren 7an, urtetako ohiturari eutsiz, 110 elkarkidek egin zuten **Xabierrera** irteera. Meza eguerdiko hamabietan izan zen, segidan bazkaria eta gero Jose Angelekin dantzaldia. Nahi izan zuenak arratsaldeko nobena entzutera joateko aukera izan zuen. Jende asko bildu zen egun horretan Xabierran, baita desfilea egin zuten militarrek ere.

Martxoaren 16an, Mus txapelketaren finala jokatu zen Donezteben. 90 bazkide bildu ziren. Txapela irabazi zuten Leitzako Juanito Zabaleta eta Migel Zabaletak. Bigarrenak: Andres Landa eta José Celestino Agerrebere. Hirugarrenak: Domingo Aranburu eta José María Olagarai.

Martxoaren 30ean, 347 bazkidek **Zarautz** eta **Aginaga** aldera abiatu ziren. Zarautzen ordu pare batez gozatu zuten eguraldi zoragarri. Izan zen ere eragozpen bat, zazpi autobus joan zirelako. Horregatik lau leku desberdinetan gelditzea erabaki zen, baina herriko munizipalek debekatu zituzten bi leku eta itzultzean denak leku berdinetik abiatu ziren nahaste pixka batekin.

Oso bazkari ona dastatuz mahai pare bat kendu ziren, dantzarako lekua prestatzeko. Datorren urtean beste sagardotegi batera joango gara, non dagoen dantza egiteko leku aproposa jendea lekutik mugitu gabe.



Apirilaren 6an, 77 bazkide **Doneztebeko poli-kiroldegian** bildu ziren gure kirolari eta yogako ikaslek prestatutako ikustaldiaz gozatzeko. Ordu erdi batez 30 partaidek, Patxi Txokarrok zuzendurik, aurkeztu zituzten urte osoan egindako ariketak.

Dantzaz bukatu zuten eskeinitakoa eta argazki bat eginda bazkaltzera joan ziren Santamaria ja-tetxeara. Gorputza ondo beterik dantzak arindu zuen pixka bat.

Apirilaren 18tik 25era 101 bazkide Portugalera joan ziren goizeko 5etan, eta beste talde bat (65 bazkide) **apirilaren 29tik maiatzaren 6ra**. Oro-korki eguraldi atsegina izan zuten eta leku oso interesgarriak ikusteko aukera ere. Bidai luzea eta nekagarria, baina merezi zuen dena egun batez egitea, gero gozatzeko.

Bigarren egunean 13 km-ko zubia ezagutu zuten. Benetan harrigarria! Baita Lisboa osoa ere eta inguruko herri batzuen monumentuak, adibidez Penako gaztelua, Jeronimoren monastegia eta Belemeko dorrea. Obidosko kaleak, gaztelu haundia eta harresiak ere merezi zuten bisita. Atsalde batean Fatimara ere joan ziren: leku ederra, zabala eta atsegina. Dena prest dute Aita Santuaren bisitarako. Coimbrako unibertsitate zaharrean oroituz zuten Azpilikueta irakaslea, zeren orain dela mende batzuk eman zituen ikasketak. Averion (Portugaleko Venezia) itzuli bat eman zuten txalupaz, eta azkenik Gaztelako Valladolid eta Burgos ere ikusteko aukera izan zuten.

Apirilaren 27an Euskal Kantuen Eguna ospatu zen Dantxarinean. Bazkal aurretik nahi zuenak aukera izan zuten inguruko bentak ikusi eta erosketak egiteko. Otxondo ja-tetxean jendea oso ondo kokatu zen, bakoitza bere zenbakiarekin, eta bazkal ondoren hasi ziren kantuak Jose Angelek zuzendurik. Gero Guateke musika taldeak sekulako arrakasta izan zuten, batez ere, gure gazte garai-ko abesti eta kantuekin. Dantza gaueko zortzietan bukatu zen eta denak pozik etxeruntz abiatu ziren.

Abenduaren 20an: 40 mendizale bildu ziren Eratsungo frontoian, inguruan mendi irteera egiteko. Egunsenti euritsu eta ilunaren ondotik, pixkanaka altxatzen joan zen. Otsolako zelaira joan ziren eta bueltarakoan marmol harrobi famatuetatik barna itzuli ziren, lau ordu eta erdiko ibilbidea osatuz. Ezkurrako Barranka ja-tetxean bazkaldu zuten, bazkaltzera propio etorritako beste bost lagunekin. Josean eta Tomasek musika jarri zuten eta Eratsungo Tolare, Juanito, Migel eta Jose Luis-ek Ardoaren Bentajak abestu zituzten. Dantzatzera animatu zenik ere izan zen. 2017rako mendi irteeren plangintza ere azaldu zuen arduradunak. Irizpide bera mantenduz, herri bakoitzak bere inguruan ibilbide bat antolatuko du, gainera Txindoki eta Gorbeara ere joanen dira eta norbait animatzen bada, Pirineotara itzulixka ere egin daiteke.

Urtarrilaren 26an: 43 mendizale Legasako pilotalekuaren aitzinean alkartu ziren, Otolo mendira irteera egiteko. Sagardia familiaren hilketa ikaragarria gertatu zen Gazteluko leze famatuan gelditu ondotik, Gaztelura jeitsi ziren eta gero bidaxkaz bidaxkaz berriz ere Legasa-



ra itzuli ziren. Ederki bazkaldu zuten, Tomas musikariak lagun zutela, kantu eta dantza artean bukatu zuten eguna.

Otsailaren 21ean: 45 mendizale bildu ziren Beran, inguruan ibilaldia egiteko. Usategieta, Landa Gaitza, Lizuniaga eta Basiliotik barna Santa Barbaraino joan ziren, bueltan zenbait baserrietatik gertu igarotzen zen bide batetik itzultzeko. Lau ordu eta erdiko ibilaldia egin ondotik Zelain ja-tetxean hartu zituzten indarrak giro ederrean bazkalduz.

Martxoaren 21ean: 54 mendizale Etxalarko sarreran alkartu ziren goizeko 8:30etan eta beti bezala argazki bat eginik. Lau orduko ibilaldia egin zuten inguruko txoko ederrak bisitatzuz: Santa Kruz ermita, Mugerdi, Xamarko, Lizaieta eta Mendiko Harri. Ibilaldiaren ondotik, indarrak hartzeko, Antoniok prestatutako bazkari goxoaz gozatzeko aukera izan zuten eta bazkalondoa borobiltzeko musikarik ez zen falta izan. Apirilean bestelako irteerak izanen direnez, batez ere Portugalera, hurrengo ateraldia maiatzaren 9an izatea adostu zuten, Leitzako plazatik 8:30etan abiatuta.



ARKUPEAK ETA ARGIBEL OPTIKA (ELIZONDO) HITZARMENA

IKUSMENA

- Betaurrekoa kristal graduatuekin 89 €- tan
- Betaurrekoa lente progresiboekin 199 €-tan
- Monofokal edo mailakako betaurreko bat erostean beste betaurreko bat opari. (Eguzkitakoa edo txuria)
- Betaurrekoen "plan renove"-a **3 urte baino lehenago** %30eko deskontua
- **Dohako errebisioa** ikusmenean
- **Dohako kontrola** begiko tensioan
- DMAe gaixotasunaren aurrean, prebentziorako, begiaren kontrola. Frogen kostua eta txosten oftalmologikoa 30€
- **Dohako bisita etxeetara** ikusmenaren errebisioa egiteko
- Fabrikako 2 urteko bermea
- %50eko galera aseguru
- Lehenengo urtean %70 bermea apurtu ezker
- Bigarren urtean %50eko bermea apurtu ezker

ENTZUMENA

- Doako errebisioa entzumenean
- **Audifono digitalak 650€tik hasita**
- 5 urteko bermea audifonoen erosketan
- 4 urteko galera eta apurketa aseguru
- Audifonoa erosteagatik pilak doan 3 urtez
- Doako egokitzapen eta jarraimena

Eskaintza hauei ezin zaie lehendik dauden beste eskaintzarik batu.

Baldintza hauek Arkupeak elkarteko bazkideari eta bere bikoteari zuzenduta daude. Txartela erakustea beharrezkoa da.

ARKUPEAK ETA ELGORRIAGAKO BAINUETXEA HITZARMENA

> IBILBIDE TERMALA

60 min. ibilbidea	11€
Baldintzak	Ordua hartzeko deitu Arkupe Elkarteko bazkide txartela erakutsi behar da

> MASAJEAK / FISIOTERAPIA

Masajeak / fisioterapia	%20ko deskontua
Deskontuak	25 min. eta 50 min. masajetan deskontua Manikura eta pedikura Parafangoak Fisioterapia
Baldintzak	Ordua hartzeko deitu Arkupeak-eko bazkide txartela erakutsi behar da

> PROGRAMATURIKO EKINTZAK

Bederatziurrena	63€ 9 eguneko ibilbidean
Baldintzak	Ordua hartzeko deitu Arkupeak-eko bazkide txartela erakutsi behar da

> ESKAINTZA OSORAKO BALDINTZA OROKORRA

Arkupeak Elkarteko bazkidea lagun batekin etor daiteke eta abantaila berdinak izango ditu.

IKASTAROAK: Igeriketa ikastaroak eskaini ditugu, hasi berrientzat eta hobetu nahi dutenentzat. **Aquagym** ikastaroa ere egin dezakezu. Anima zaitetzte!

> 2016ko emaitzen kontua Cuenta de resultados del año 2016

SARRERAK / INGRESOS:

NAFARROAKO GOBERNUA / GOBIERNO DE NAVARRA:

Elkartegintza sustatzeko dirulaguntza <i>Subvención de Fomento del Asociacionismo</i>	7.406,75	
Jarduerak eta Programak garatzeko dirulaguntza <i>Subvención de Actividades/Programas</i>	9.591,12	
Denetara / Total		16.997,87

TOKI ADMINISTRAZIOA / ADMINISTRACION LOCAL Bortzirietako eta Malerrekako Mankomunitateak, eta Baztango Udala / Mancomunidades de Cinco Villas y Malerreka y <i>Ayuntamiento de Baztan</i>		450
--	--	------------

FINANTZA ERAKUNDEAK / ENTIDADES FINANCIERAS

Nafarroako Kutxa Fundazioa <i>Fundación Caja Navarra</i>	6.000,00	
Denetara / Total		6.000,00

SARRERA PROPIOAK / INGRESOS PROPIOS

Bazkideen kuotak / <i>Cuotas Socios/as</i>	23.005,00	
Erabiltzaileen sarrerak / <i>Ingresos usuarios</i>	400.506,80	
Bertze batzuk / Varios (lotería, apartekoak / <i>extraordinarios, etab/ etc.</i>)	15.545,87	
2015ko saldoa / <i>Existencia de 2015</i>	362,52	
Denetara / Total		439.420,19
DENETARA SARRERAK / TOTAL INGRESOS		462.868,06

GASTUAK / GASTOS:

Langilea / <i>Personal</i>	13.595,48	
Funtzionamendua / <i>Funcionamiento</i>	26.676,39	
Jarduerak / <i>Actividades</i>	421.984,06	
DENETARA GASTUAK / TOTAL GASTOS		462.255,93

LABURPENA / RESUMEN		
Sarrerak denetara / <i>Total de ingresos</i>	462.868,06	
Gastuak denetara / <i>Total gastos</i>	462.255,93	
AZKEN EMAITZA / RESULTADO FINAL		612,13

> 2017ko aurrekontua Presupuesto de 2017

SARRERAK / INGRESOS:

NAFARROAKO GOBERNUA / GOBIERNO DE NAVARRA:

Elkartegintza sustatzeko dirulaguntza <i>Subvención de Fomento del Asociacionismo</i>	7.500,00	
Jarduerak eta Programak garatzeko dirulaguntza <i>Subvención de Actividades/Programas</i>	9.000,00	
Denetara / Total		16.500,00

TOKI ADMINISTRAZIOA / ADMINISTRACION LOCAL Bortzirietako eta Malerrekako Mankomunitateak, eta Baztango Udala / Mancomunidades de Cinco Villas y Malerreka y <i>Ayuntamiento de Baztan</i>		450
--	--	------------

FINANTZA ERAKUNDEAK / ENTIDADES FINANCIERAS

Nafarroako Kutxa Fundazioa <i>Fundación Caja Navarra</i>	10.000,00	
Denetara / Total		10.000,00

SARRERA PROPIOAK / INGRESOS PROPIOS

Bazkideen kuotak / <i>Cuotas Socios/as</i>	22.300,00	
Erabiltzaileen sarrerak / <i>Ingresos usuarios</i>	388.850,00	
Bertze batzuk / Varios (lotería, apartekoak / <i>extraordinarios, etab/ etc.</i>)	13.534,00	
Denetara / Total		424.684,00
SARRERAK DENETARA / TOTAL INGRESOS		451.634,00

GASTUAK / GASTOS:

Langilea / <i>Personal</i>	13.000,00	
Funtzionamendua / <i>Funcionamiento</i>	27.434,00	
Jarduerak / <i>Actividades</i>	411.200,00	
DENETARA GASTUAK / TOTAL GASTOS		451.634,00

LABURPENA / RESUMEN		
Sarrerak denetara / <i>Total de ingresos</i>	451.634,00	
Gastuak denetara / <i>Total gastos</i>	451.634,00	
AZKEN EMAITZA / RESULTADO FINAL		0

JUBILOTEKA HARREMANA

Elkartzeko tokia da. Bertan afizioak, jarduerak, lagunekin egotea edo harremanak, adiskidetasuna, lagun berriak egitea eta abar da helburu. **URDAZUBI/ZUGARRAMURDIN eta ELIZONDON** jarri dira martxan, bi profesionalen laguntzarekin.



Eskulanak Urdazubin

Crucis, Isabel, Mari Cruz, Carmen, Dolores eta Paquita

SOLASALDIAK

GIMNASIA

ESKULANAK

JOKOAK

IRTEERAK...

Elizondon astelehena eta asteazkenetan,

10:00etatik 13:00etara. 50 €/hilean

Urdazubin

ostegunetan 16:00etatik 19:00etara 30 €/hilean.

Zugarramurdin

astartetan 16:00etatik 19:00etara 30 €/hilean.

Etxetik kotxean eramateko zerbitzua emanen da behar izanez gero



Isabel bere lore zentrua bukatzen

Jubilotoki horiek hauen laguntza jasotzen dute Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztango Udalak, Arkupeak, La Caixa, Cederna Garalur.



BEGIRALEA:
AMAIA IRIONDO

PARTE HARTZEKO DEITU TELEFONO HAUETARA 659 849 570 (AMAIA)
EDO 618 567 837/ 948 450 878 (ARKUPEAK)

Hurrengo
irekierak:
Arizkun eta
Mugaire